

## 7. PIEZA

### **▣ FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Funtsezko elementuak, enpresa bati ahalbidetzen diote bere balio-proposameneko eskaintza garatzeko. Beraz, oso garrantzitsua da enpresa baten funtsezko baliabideak aztertzea. Hirutan banatzen dira:

#### BALIABIDE FISIKOAK

- Bilbon, lokal bat alokatu dugu, enpresaren partaide bakoitzak ekonomikoki lagundu eta gero. Lokal horrek 250 metro karratu izango ditu eta hainbat gelatan banatuta egongo da.
- Bi gela izango ditugu haurrak txoko ezberdinak izan dezaten. Alde batetik, jarduera gela egongo da eta bestetik, eskulanekin zerikusia duten jarduerak egiteko gela.
- Jarduera gela, hurrekin jarduera eta ekintza orokorrak egiteko eta gurasoekin izan behar ditugun hitzaldiak egiteko izango da.
- Eskulanak egiteko gela, aldiz, izena esaten duen moduan, manualitate aktibitateak egiteko erabiliko ditugu.
- Bi gela horretaz aparte, material guztia gordetzeko gela bat dago baita ere, eta bertan lan egiten dugun pertsonontzat, bulego bat, bertan beharrezko informazio guztia izateko eta lan egiteko.

#### BALIABIDE INTELEKTUALAK:

- Gure web orrian, bertan ludotekak eskaintzen dituen zerbitzuak eta beharrezkoa den informazio guztia azalduko dugu. Horrez aparte, sare sozial ezberdinetan (twitter, facebook, instagram) aktiboak egongo gara gure bezeroei beharrezko informazioa ematearen helburuarekin.
- On line kanalak izanez aparte, off line kanalak ere baditugu, hau da kartelak, liburuxkak, etab.
- Gure ludotekaren izena SAMG da, eta izena partaide bakoitzaren izenaren lehenengo letra ezarriz sortu genuen.

- Gutako bakoitzak, transmititu behar ditugun baloreei buruz gero eta gehiago ezagutzen joan gaitezen, on-line kurtsoak egingo ditugu.

## GIZA BALIABIDEAK

Taldearen partaide bakoitzak, haien pertsonalitatea eta jakinduriaren arabera, eginkizun ezberdinak izango ditugu.

- **ADRIAN:** Pertsona oso argia da eta ideiak oso zehaztutak ditu, beraz, **lidergoaren** papera beteko du, bere nortasuna dela eta, oso ongi beteko duelako.
- **GARAZI:** Beste pertsonekin komunikatzeko duen erraztasuna dela eta, bera izango da enpresaren **negoziazioaz** arduratuko dena. Garazi materiala erosteko enpresarekin hitz egiten arduratuko da, eta baita ere, gurasoei beharrezkoa dutena transmititzeko ere.
- **SANDRA:** Sandra, imaginazio handia duen pertsona da, beraz, kartelen **diseinuak** eta **sare sozialetan informazioa modu sortzaile batez eramateko**, bera izango da arduraduna. Bere nortasuna, diseinuak egitarekin bat dator, beraz aproposena dela pentsatzen dugu.
- **MONIKA.** Pertsona oso lasaia da, orduan, arazoak egotekotan, bera izango da, arazo horiei erantzun egokia bilatzen saiatuko dena. Bere partaideak desmotibatuta sentitzen direnenan, bata laguntza eskeiniko duen pertsona izango da. Bere papera, **motibazioa sustatzea** eta **arazoak konpontzea** izango dela esan dezakegu.

## FINANTZA BALIABIDEAK

- Partaide bakoitzak 2.000 euro jarriko ditugu.
- Udalak, laguntza ekonomikoa emango dizkigu, gure proiektua aurrera eraman dezagun. (2.000 euro)
- Denbora pasa ahala, kuotekin etab, hasieran izango dugun hutsunea betetzen joango gara, gero, materialak saltzen dizkigun enpresari eta bertan hitzaldiak emanez lan egingo duten langileei behar bezala ordaintzeko.